

### **103. OSOKO BILKURAKO AKTA**

Zumaia herrian, 2016ko uztailaren 5ean, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Oier Korta Esnal jna.

**Bertaratutako zinegotziak:** M. Cruz Alvarez Aparicio and.  
Gotzon Embil Unanue jna.  
Jon Joseba Iraola Rezola jna.  
Cristina Vicente Iciar and.  
Xabier Garmendia Iztueta jna.  
Alex Oliden Antia jna.  
Arritokieta Iribar Egaña and.  
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.  
Josu Arrieta Arriola jna.  
Ione Muguerza Egaña jna.  
Nerea Eizagirre Telleria and.  
Arritokieta Marañon Basarte and.

**Ez bertaratuak**

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIK

Alkateak batzarraldiari hasiera eman dio ohartarazpen batekin, izan ere hirugarren puntua –pertsonalari buruzkoa- atera egin du gai zerrendatik. Zehaztu du gai honek aurreko legealditik datorrela - administrariak sartutako erreklamazio baten ingurukoa-, buztan luzea duen gai bat dela eta bere denbora behar duena; udal-gobernuak bilera bakar bat egin duela administrariekin, eta gai honek azterketa eta bilera batzuk eskatuko dituela administrariekin.

### 1.- 100. ETA 101. AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA

Osoko Bilkurak bi aktak onartu ditu

### 2.- ALONDEGIA AURREKO PLAZATXOAREN IZENDAPEN BERRIA ONARTzea, BIDEZKO BADA.

#### AURREKARIAK

1.- 2016ko Maiatzaren 24ko BERDINTASUN ETA ANIZTASUN BATZORDEAn Alondegiaurrean eta Eribera Kaleko 22 eraikinaren, Pulpo Elkarte kokatzen den eraikinaren Ekialdean kokatzen den Plazatxo "Saregileen Plaza" bezala izendatzeko proposamenaz informatu zen. Bertaratuko batzordekide guztiak alde azaldu ziren.

2.- 2016ko ekainaren 27an hirigintza, ingurumena, obra eta zerbitzuetako batzorde informatzailean Zumaia Udal gobernuaren proposamena aurkeztzen da, bertan aurrez aipatutako gunea "Saregileen Plaza" izendatzea jasotzen da.

3. Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko araudiak 75 artikulua dioena eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legeko 22.2 q) letrak dioena kontuan izaten baditugu, Udalbatzari dagokio kaleei izenak jartzea.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2016ko ekainaren 27ko Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuen Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta esnal (EAJ)

Jon Iraola Rezola (EAJ)

Aurka:

Abstentzioa: Alex Oriden Antia (Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:



**Zumaiako Udala**

2016IAKU0003-003-003

Lehena.- Alondegiaren aurrean eta Erribera Kaleko 22 eraikinaren, Pulpo Elkartearen kokatzen den eraikinaren Ekialdean kokatzen den Plazatxoaren "Saregileen Plaza" bezala izendatzea.

Bigarrena.- Erabaki honen berri herritarrei ematea.

Zumaian, 2016ko ekainaren 27an

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeburua  
Oier Korta Esnal

Alkateak gaia aurkeztu du eta hitza eman die beste taldeburuei

Alex Olidenek (EH BILDU) esan du, izena berez a proposa iruditzen zaiela baina behar bada matiz txiki bat ere mereziko lukeela: "emakume saregileak"; hobeto ikusten dutela horrela, nabarmenago gelditzen delako emakumeen aldeko inizatiba bat dela, berdintasun batzordean adostasuna azaldu zutela baina baita ere aipatu zutela emakumeen foruan edo berdintasun foroan bazegoela eskaera bat, hain zuzen, plaza honi buruzkoa eta beste plaza bati edo beste herriko edozein kaleri edo martxoak 8 izena jartzeko eskaera egin zutela berdintasun batzordean ere. Hortaz, argitu du, beraien abstentzioaren esanahia da beste behin ere parte-hartze printzipioa ahaztu eta berdintasun foroaren eskaerari muzin egin zaiolako. Aukera ederra zela parte-hartze bidez bai izen hau eta bai martxoak 8 biak beste leku bat aprobetxatuz biak jartzeko eta galdu egin dela aukera hori. Orduan posibilitate bat bazegoen denon gogoak betetzeko baina galdu egin dela eta, formalki Ardantzabiden izenik gabe dagoen plazari "martxoak 8" izena ematearen eskaera plazaratu du.

Alkateak gai honen inguruan EH Bilduk hartu duen jarrerarekin harridura azaldu du, eta baita ere EH Bilduk parte-hartzearen inguruan egiten duen aldarriarekin, izan ere gai honek ere bere buztana baduelako eta aurreko legealdian gai hau udal-gobernuan EH Bildu zegoenean proposatu zela Berdintasun Foroak – martxoak 25eko berdintasun batzordean-; akta irakurri du non Berdintasun Foroak Alondegiaren aurreko plaza martxoak 8 plaza izendatzeko eskaera egiten duen. Jarraitu du esaten -Akta gogoratuz- Edurne Egañak adierazi zuela –garai hartan oposizioko EAJko zinegotziak- plaza bat izan beharrean pasagunea dela eta baduela betiko izena pulpoko aurrea, beraz, berak ez dio zentzu handirik ikusten beste izen bat jartzeari, gainera herrian kale berriak egingo direla eta askoz egokiago ikusten duela izen hori erabiltzea horretarako. Edurnek esandakoari Maitane Agirrek –garaiko batzordeburuak- bat egin zuela berak esandakoarekin eta berdintasun forokoei esango ziela. Hori guztiagatik Alkateak harridura azaldu du eta batez ere otsaileko plenoan Nerea Eizagirrek – EH Bildu- proposatu zuelako Ardantzabideko plaza erabiltzea emakumeak bisualizatzeko herrian eta hurrengoko kaleetan saiakera egin beharko litzatekeela presentzia hori indartzeko eta izenak proposatu zituela: lehenengoa,

**Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • <http://www.zumaia.eus>  
e-mail: [info@zumaia.eus](mailto:info@zumaia.eus)**



## Zumaia Udala

2016IAKU0003-003-003

saregileak, garai batean emakumeak josten zituen sareak, Elvira Zipitria eta beste lau, baina lehenengoa saregileena izan zela. Udal-gobernuak gero berdintasun batzordera eraman zuela bere proposamena, EH Bilduk adostasuna azaldu zuela; gehitu du Alkateak parte hartze prozesuek bere garrantzia daukatela baina azkenean partidu politikoak direla herritarrei errepresentatzen dietenak udaletxean, eta uste du nahiko pixu badela batzorde horretan zeuden 12 zinegotzi. Ondorioztatu du berdintasun foroari inongo errespetaturik falta gabe baina azkenean zinegotziak herritarrek aukeratu dituztela eta beraz legitimitate nahikoa daukatela, eta, batez ere, horrelako proposamen bati horrelako babesa azaldu eta gero, lehenengo batzorde horretan ontzat eman edo begi onez ikusi eta danok hartu konpromisoa etorkizunean hurrengoko plaza bati edo kale bati martxoak 8 jartzeko hor gelditzen dela pendiente, eta horrelako adostasuna izan eta gero ez dute oso ondo ulertzen hartu EH Bilduk hartu duen jarrera.

Arrixe Marañonek (ES-SV) adierazi du hitzez hitz:

"yo he votado a favor porque la propuesta me parece bien y tiene todo el sentido del mundo, efectivamente hubo una propuesta con anterioridad para... en Zumaia visualizar el papel y la labor de la mujer en las calles y en las plazas del municipio y este es el primer ejemplo.

Me parece bien por dos razones:

1.- Porque visualiza la figura de la mujer pero

2.- La visualiza en el sentido que es un lugar muy específico en la que se veía perfectamente una determinada tarea, muy determinada en la vida del pueblo y es precisamente en ese espacio y en ese lugar y me parece correcto incluso lógico.

Y para terminar va unido a que efectivamente estaba la propuesta para poner el tema de la calle-plaza 8 de marzo y espero que efectivamente como has dicho que quede pendiente pero que efectivamente se lleve a cabo en otro momento y en otra situación y con otra posibilidad, o sea yo no entraría a discutir más."

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) adierazi du esan diren gauzak ondo ikusten dituztela eta saregile izena beraiek proposatu zutela eta gau egun kale izendegian dagoen desberdintasun hori orekatu ahal izateko izen asko beharko lirakeela; horregatik, beraiek saregileak jarri eta hemendik hilabetera etxekoandreak edo beste izena jartzearekin ados daudela; nolahi ere, beraien jarrera justifikatu du esanez, duela urtebete berdintasun foroak izenik gabe zuen plazari izena jartzea proposatu zuela eta orain ez erantzutea edo beste izen bat jarri izanak harritu egin dituela.

Josu Arrietak (EH BILDU) zehaztu du bere taldea ez dagoela proposamenaren aurka baina, esan du, ez dela oso elegante geratzen berdintasun foroak eskakizun bat egin eta eskakizun horri beste izen bat jartzea inongo esplikaziorik eman gabe; horregatik esan du agian hobe izango litzatekeela Berdintasun Foroari arrazoiak azaltzea eta gero plenora ekarri gaia.



Kristina Vicentek (EAJ-PNV) argitu du, Berdintasun Teknikariak hala adierazi zuelako, Foroak bazekiela udal gobernuak erabaki zuela saregileen plaza ipintzea; ez zeudela ados prozedurarekin baina bazekitela. Berdintasun batzordean tratatu zela eta gero hori joan zelan forora eta foroan azaldu zuela Berdintasun Teknikariak. Azpimarratu du, ba, kontsultatu zela Foroarekin, baina ondorioztatu dutela leku egokiena ez dela hori "martxoak zortzi" izena jartzeko, beste lekuren batean jarriko dutela; eta ez du bidezkoa ikusi halako kasketa hartzea ez delako martxoak zortzi jartzen.

Alkateak esan du ez dakiela aurreko udal gobernuak erantzunik eman ote zion, beraiek proposamena egin dutela eskaera bat zegoelako berdintasun forotik plaza horri martxoak 8 jartzeko, baina aproposagoa ikusi dutela plaza horretan ematen zen jarduerari aipamena egitea leku horretan hain zuzen egiten zelako. Horrela bisualizatzen delako bai emakumeek egiten zuten jarduera bai Zumaia herriak izan duen bilkaera arrantzale giroko lekua izatetik beste argazki urbano batera pasa baita.

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)**

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak: 6 boto (6 EH BILDU)**

**ERABAKIA:** Alondegiaren aurrean eta Erribera Kaleko 22 eraikinaren, Pulpo Elkartea kokatzen den eraikinaren Ekialdean kokatzen den Plazatxo "Saregileen Plaza" bezala izendatzea onartu da.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta zazpi minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria